

# 2020 HAUTESKUNDEAK

Greenpeace-n proposamenak Euskal Autonomi Erkidegoko hauteskundeetarako  
*(Krisi ekologikotik COVID-19-ra. Sistemaren eraldaketa beharrezkoa da)*

**GREENPEACE**

[www.greenpeace.es](http://www.greenpeace.es)

2020 Ekaina

Argazkiak Pedro Armestre

**Sarrera**

- 20 neurri klima larrialdiari eta Biodibertsitate krisiari 8  
aurre egin ahal izateko
- 1 Klima-aldaketa, ekonomiearen eraldaketa ekologikorako aukera 8
- 2 Biodibertsitatea eta ekosistemak, gure gizartearen 8  
garapenaren giltzarria
- 3 Tokiko kontsumo eredua aldatzeak duen eraldaketarako ahalmena 8

Euskal gizarteak erronka handiak ditu aurretik. COVID-19K eragindako pandemia ekintzarako deia da, eta mende honetako bi erronka handirekin bat egiten du: **krisi ekologikoa eta gizarte desberdinkeria gero eta handiagoa**. Zientziak dio datorren hamarkada erabakigarria dela klima-krisiaren aurka jarduteko, eta datozen lau urteak bereziki garrantzitsuak izango direla erantzun bat emateko eta ondorio atzeraezinak saihesteko. Egoerak orain eskatzen digu, denbora errekorrean, aurreko hamarkadetan planetaren muga fisikoen gainetik bizitzeak ekarritako ondorioak atzera botatzea. **Ekintza politikorako garaia da.**

Pandemia honen ondorioz sortutako egoerak gizakiaren ahultasuna erakutsi digu. Gero eta ebidentzia zientifiko gehiago daude planetaren eta giza osasunaren arteko harreman estua erakusten dutenak. Pandemia anker horrek benetan garrantzitsua, lehentasunezkoa eta premiazkoa dena ere erakutsi digu: **ekonomia eraldatzea, pertsonak eta planeta erdigunean jartzeko.**

EAEko lurraldea, gainerako planeta bezala, beroketa globalaren ondorio kaltegarrien mehatxupean dago, eta ahuek bereziki biztanleriarik zurgarrienei eragingo die. Krisi klimatikoaren eta etorkizuneko pandemien eragin okerrenak saihesteko, berotegi-efektuko gasen emisioak azkar eta gogor murriztea eta planetaren muga fisikoak errespetatzea beharrezkoa da. **Ebidentzien arabera, krisi ekologikoa geldiarazteko ahaleginak ezin dira gauzatu gure gizarte-ereduan aldaketa sakonik egin gabe eta egungo hazkunde ekonomikoa eta ekoizpen- eta jabetza-egiturak zalantzan jarri gabe.**

## **Erlazio argia dago planetako osasunaren eta gure osasunaren artean**

*Fernando Valladares, CSIC-eko ikerlaria*

Aurrean ditugun erronkek **politika ausartak** behar dituzte finantza-botere handien interes ekonomikoei aurre egiteko eta ondasun komunari balioa emateko. Gizarte- eta ingurumen-helburu horiek lortzeko, beharrezkoa da gure natur ingurunea babestea eta bizitza defendatzea, eta etorkizuneko belaunaldiek natur ondare osasungarria jarauntsitzeko duten eskubidea babestea. Hala eskatzen ari da Europa osoko gazteria: planeta agortzen ari da eta azkar eta irmo jokatu behar da. **Ez dugu eskubiderik etorkizuna lapurtzeko.**

**Pandemiak sortutako tristura sakona eta jarduteko premiaz haratago, oraindik ere bada itxaropenik.** Krisi ekologikoa, soziala eta sanitarioa ekonomia berde eta solidarioaren aldeko apustua egiteko aukera ere bada. Beste produkzio- eta kontsumo-eredu baterako trantsizioa, enplegu berdea eta gizarte-ongizatea sortzeko aukera ere bada. Dokumentu honetan, erantzun azkarra behar duten euskal gizarteak dituen erronka handiei aurre egiteko proposamenak aurkezten ditugu. **Ezagutzen dugun bizitza eta gure planeta jokoan daude. Kontzientziak astintzeko eta balio okerrak baztertzeko garaia da.**

### 20 NEURRI KLIMA LARRIALDIARI ETA BIODIBERTSITATE KRISIARI AURRE EGIN AHAL IZATEKO

1. Klima Aldaketaren Legearen aurreproiektua, Klima Aldaketaren Euskal Estrategia 2050 eta Energia Jasangarritasunaren Legea aldatzea, 2030erako gutxienez %55eko murrizketa bermatzeko, eta 2040an zero karbonoko emisio garbiak lortzeko. 2030ean sistema elektriko %100 berriztagarria lortzea, eta %100 energia-sistema berriztagarria, eraginkorra eta adimenduna 2040an.
2. Petrolio-industriako finketaren jarduera bertan behera uzteko plangintza egitea Petronorreko findegia ixteko plana ezarriz, Muskizko koke-instalazioaren eraisketatik hasita.
3. Gasaren produkzio edo kontsumoan igoerak geldiaraztea eta inbertsio gehiagori uko egitea. Beharrezkoa da epe ertainean Bizkaiko ziklo konbinatuko hiru zentral termikoen itxiera definitzea.
4. Plan autonomiko bat bultzatzea, estatukoaren osagarri izango dena, %100 berriztagarria den energia-trantsizioa pertsona eta eskualde guztientzat bidezkoa izan dadin. Plan horrek alde aurreko azterketa, aurrekontua, datak eta parte-hartzea izango ditu, ekoizpen-jarduera iraunkor berrietarako trantsizioa errazteko eta bizkortzeko, genero-ikuspegia barneratuta.
5. Elikadura burujabetza eta nekazaritza ekologikoa sustatzea, 2030erako erabilitako nekazaritza-azaleraren % 30a eta 2050erako % 100a lortu arte. Nekazaritza Politika Bateratu (NPB) justu eta berde baten eta "planetako osasun-dieta"-en aldeko apustua egitea.
6. Artisau-arrantza eta arrantza-baliabideen erabilera jasangarria defendatzea, kudeaketa hobetuz eta kalen gehiegizko ustiapenaren eta legez kanpoko arrantzaren aurka borrokatuz, eta itsas erreserben kopurua handitzea. Sektorea klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko planak garatzea.
7. Oinarrizko ondasunen hornidura ziurtatzea, hala nola urarena, baliabide hidrikoak behar bezala kudeatuz. Ura kutsatzen duten jardueri adi egotea eta hauek zigortzea. Eskaeraren hazkundera geldiaraztea. Iraungitako kontzesio hidroelektrikoak berreskuratzea.
8. EAEko Biodibertsitate Estrategiak 2020ra arte planteatutako neurrien betetze-maila aztertzea, 2030era arte ezarritakoak betetzen direla eta EBren helburu berriak txertatzen direla zaintzea.
9. Babestutako guneen euskal sarea eta, bereziki, Natura 2000 sarea zabaltzea, 2030erako lurraldearen %30 gutxienez babestua izatea lortu arte.
10. Itsasertzaren eta landa-ingurunearen hirigintza-plangintza egokia bermatzea, itsas mailaren igoeraren eta uholdeen inpaktuak kontuan hartuta, baita baso-suteak handitzeko arriskua ere.
11. Monolaborantzetan oinarritutako baso-ekoizpen intentsiboa ez sustatzea eta klima-aldaketarekiko erresilientzia handiena duten baso-masak eragingo dituen eredu dibertsifikatuagorako trantsizioa sustatzea. Espezie autoktonoen basoak berreskuratzea eta mendiaren erabilera anitza sustatzea.

- 12.** Legeria betetzea naturgune guztiek Erabilera eta Kudeaketarako Plan Zuzentzailea (EKPZ) izan dezaten legegintzaldi honetan, eta arauak agintzen duen bezala, Arriskuan dauden Espezieen Euskal Katalogoko espezie guztien kontserbazio-eta leheneratze-planak eguneratzea eta egitea.
- 13.** Lurraldearen balio naturala, kulturala eta ondare-balioa aitortzen duen turismoa sustatzea, ingurunearen karga-ahalmena kontutan hartuz eta oreka ekologikoari lehentasuna emanez. Itsasertzeko eta landa-inguruneko hirigintza-plangintza egokia bermatzea.
- 14.** Ekonomiaren trantsizio ekologikoa ezartzea, pertsonen kontsumo- eta mugikortasun-ohiturak aldatzeko. Produktuen iraunkortasuna eta konpongarritasuna bermatzera derrigortu eta programatutako zaharkitzea debekatzea.
- 15.** Hondakinen lege autonomiko baten bidez araudia sortzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Zirkularraren Estrategia birplanteatzea, zero hondakineko politiketan aurrera egiteko eta, hala, Euskadin zabortegeak eta erraustegiak behin betiko ixteko. Hurbiltasun-eredu deszentralizatu ezartzea, hondakinak murrizteari, berrerabiltzeari, birziklatzeari, konpostajearen bidez, SDDRari, atez ateko sistemari eta abarri lehentasuna emanez.
- 16.** 2030eko Euskadiko Garraio Iraunkorraren Plan Zuzentzailea eta mugikortasun iraunkorraren lege-proiektua berrikustea Eusko Jaurlaritzaren larrialdi klimatikoaren deklarazioarekin koherentea izan dadin. Garraio garbi, adimentsu eta sozialki bidezkoa ezarri ahal izateko, automobil partikularraren aurrean motorrik gabeko garraiobideak eta garraio kolektiboa lehenetsiko dituen, eta, aldi berean, energia berriztagarrietan oinarritutako garraio publiko kolektiborako trantsizioa erraztuko duena.
- 17.** Egungo bide-sarearen kontserbazioari lehentasuna ematea, autobide berriak egin eta portu edo aireportu berriak eraiki edo handitu beharrean. Inbertsioek lehendik dagoena mantendu eta hobetu behar dute, eta inbertsio zehatzak egin bakarrik akatsak dituzten puntuak zuzentzeko.
- 18.** Trantsizio ekologikoan parte hartu nahi duten pertsona eta negozioentzako neurri fiskalak eta laguntza-neurriak abian jartzea: autokontsumoa, birgaitze energetikoa, eraikuntza jasangarria, ibilgailu elektrikoak, eskaria kudeatzeko eta agregatzeko sistemak (bai garraiokoak, bai energia elektrikoak), elikadura ekologikoa, tokikoa eta sasoikoa.
- 19.** Autonomia erkidegoan zerga-erreforma berdea garatzea, jokabide aldaketak sustatzeko, “kutsatzen duenak ordain dezala” printzipioa aplikatzeko, trantsizio ekologikorako aurrekontua ezarriz eta, aldi berean, klima eta biodibertsitate-krisiaren aurkako borroka sustatzeko, bereziki landa-eremuan, zerbitzu ekosistemikoak babesteko duen garrantziagatik.
- 20.** Egoera zaugarrian dauden eta energia- pobrezia bizi duten pertsonen oinarritzko ur-, berokuntza- eta elektrizitate-hornidurak eskuratzeko eskubidea legez bermatzea. Kontratazio publiko ekologikoa eta iraunkorra ezartzea kontsumo-ereduen eta administrazioen lizitazioen ardatz nagusi gisa.



# 2020 HAUTESKUNDEAK

Klima-aldaketa, ekonomiaren eraldaketa ekologikorak



o aukera

#### 1 KLIMA-ALDAKETA, EKONOMIAREN ERALDAKETA EKOLOGIKORAKO AUKERA

Klima larrialdi egoeran gaude. Planetako temperatura 1,5 °C-tik gora igotzea ekiditea, Klima Aldaketaren Gobernu arteko Paneleko (IPCC) komunitate zientifikoak adierazten duen bezala, ezinbestekoa da eta **hurrengo hamarkada hau lortzeko erabakigarria da**. Jokoan dagoena ez da orainaldia bakarrik, etorkizuna baizik, eta, alde horretatik, **oso garrantzitsua da Gobernuaren** jarduna. Honek krisi klimatikoari aurre egiteko ahaleginak bere politiken erdigunean jarri behar ditu.

Klima-aldaketaren eragin txarrenak saihesteko, neurri sakonak eta anbizio handikoak behar dira maila guztietan, eta horrek onura ugari ekarriko dizkio bizitzari eta planetari. Horregatik, ekoizpen eta energia sistemaren eraldaketa ekologiko sakona ezinbestekoa da, pertsonak eta planeta erdian jarriko dituen. Gainera, kontuan izan behar da emakumeak, direla krisi klimatikoaren inpaktuak gehien jasaten dituztenak, ikusezin bihurtzen diren bitartean, nahiz eta aldaketa eragile ezinbestekoak diren trantsizio feminista eta ekologista ziurtatzeko; beraz, genero-ikuspegia funtsezkoa da behar den norabidea aldatzeko.

Euskadik mendekotasun handia du erregai fosiletatik datorren energiarekiko, eta energia berriztagarria kontsumo osoaren % 6,4 baino ez da. Konponbidearen zati dira energia berriztagarriak eta eraginkortasun energetikoa garatzeko forma demokratiko eta komunitarioen aldeko apustua: garraio sistema efiziente eta adimentsuak, honakinen kudeaketarako sistema aurreratu eta iraunkorrak, airearen kalitatea eta herritarren osasuna babeswtea, ingurumenari kalte egiten dioten proiektuak bertan behera uztea, kalitatezko nekazaritza eta abeltzantzia, baliabide naturalen kudeaketa jasangarria eta fiskalitate berdea.

Eraldaketa ekologiko hori ezin da posible izango **trantsizio justu bat garatzen ez bada**, pertsona bakar bat ere atzean utzi gabe. Trantsizioa indartu egin behar da pertsonen bizi-kalitatea BPGtik haratago hobetuko duten gizarte-politikekin eta ekimen kolektiboekin. Eraldaketa horrek aukera bat izan behar du gizarte berdinzaleagoa eta kooperatiboagoa lortzeko, ondasun komunak mantendu eta berreskuratzeko.

## Neurriak

### A) Anbizio klimatikoa 2040an zero emisio garbiak lortzeko eta ekonomiaren trantsizio ekologikoan sektore guztiak sartzeko

- Euskadin, 1990eko datuekin alderatuta, emisioak gutxienez % 55 murrizteko helburuak 2030erako eta 2040rako deskarbonizazio osoa.
- Euskadiko Klima Aldaketari buruzko Legearen aurreproiektua egokitzea, eredu ekonomikoa bere osotasunean har dezan eta energiaren gain funtsezkoak diren beste sektore batzuk (nekazaritza, abeltzaintza, arrantza, hondakinen kudeaketa, basogintza, industria edo turismoa) sartzeko beharrezko lege-esparrua ezar dezan.
  - » Lege-aurreproiektu honetako emisioak murrizteko helburuak aldatu behar dira, baita Klima Aldaketaren Estrategiaren helburuak ere, helburu horiek bat etor daitezela komunitate zientifikoaren gomendioekin, 1,5 °C ez gainditzeko eta 2040rako emisioak zero izan daitezela.
- 'Klima Aldaketaren Euskal Autonomia Erkidegoko 2050 Estrategia' goitik behera aldatzea, 2040an zero karbonoko emisio garbiak lortzeko direla bermatzeko, emisioak murrizteko eta erregai fosil guztiak (ikatz, gasa, petrolio) askoz asmo handiagokoak uzteko.
  - Erkidego mailan erreforma fiskal berde bat abiatzea zein jokabide-aldaketak sustatuko dituen eta **“kutsatzen duenak ordaintzen du” pritzipioa ezarriko duena.** Era berean trantsizio ekologikoair aurrekontu bat esleituko dio eta landa eremuan bereziki klima eta biodibertsitate krisien aurkako borroka sustatuko duena eremu hauek zerbitzu ekosistemikoen babeserako daukaten garrantziarengatik.
    - » Euskal autonomia erkidegoaren eskumenak zein Airearen kalitatearen inguruko legearen aplikazioa aztertu matrikulazio zerga ibilgailu bakoitzaren emisioetan oinarrituta, fiskalitate tresna bezala erabili ahal izateko.
    - » Kenkari autonomikoak ezartzea PFEZren esparruan, ingurumen-irizpideekin; adibidez, energia-eraginkortasuneko irizpideekin eraikitako edo berritutako etxebizitzetarako edo energia berriztagarriak aprobetxatzeko murrizketak, modu honetan tokiko energia-komunitateei laguntzeko.
    - » Hondakin arriskutsuen, ez-arriskutsuen eta eraikuntzaren isurketaren eta errausketaren gaineko zergak martxan jartzea.
    - » Lurzoruaren erabileren aldaketaren gaineko zerga sortzea, horixe baita biodibertsitatea galtzearen faktore nagusia.
    - » Hondakinak kudeatzeko zerbitzurako zerga ezartzea, tasen definizioan ingurumen irizpideak kontuan hartuz.

- Hurrengo hezkuntza-erreformen curriculumetan larrialdi klimatikoa eta ingurumen-hezkuntza ikuspegi ekosozialetik kontuan hartzea.

#### **B) % 100 berriztagarria, eraginkorra, bidezkoa, genero-berdintasuna bermatzen duen eta jendearen eskuetan dagoen energia-eredu baterako trantsizio azkarra**

- 2030ean %100 berriztagarria den sistema elektrikoa eta 2040an %100 berriztagarria den energia-sistema lortzea.
- Kooperatibek eta herritar energetikoen antolatzeko beste moduen parte hartzea sustatu, azaldu eta lehenetsi energia berriztagarria sortzeko, autokontsumorako (banakakoa zein partekatua eta hurbilekoa), energia biltegitratzeko, truke askerako eta eskaria kudeatzeko; eta energia zikinak edo arriskutsuak erabiltzea sustatzen duen edozein ekimen politiko, diru-laguntza edo pizgarri amaiara ematea.
- Industriarekin koordinatuta lan egitea energia-eskariaren hazkundea geldiarazteko eta berotegi-efektuko gasak murrizteko, eta energia aurrezteko, energia-eraginkortasuna eta elektrifikazioa sustatzeko.
- Erregai fosilen amaiera 1,5 °C-an tenperatura globalak ez gainditzeko gomendio zientifikoekin bat etorritik onartzeak petrolio-industriaren finketaren jarduera bertan behera uzteko plangintza egitea eskatzen du. Horrek esan nahi du Petronorren findegiaren itxiera-datari buruzko eztabaida piztu behar dela. Hasteko, Muskizko koke-instalazioa eraitsi egin behar da, zeina lurzoruaren okupazioari buruzko nahitaezko txostenik gabe eraiki zen, Auzitegi Nazionalak ebatzi duenez. Era berean, altzairua eta metala fabrikatzeko industria-prozesuek emisioak ahalik eta gehien arintzea, energia berriztagarriak erabiltzea eta materialak birziklatzea barne hartu behar dituzte.
- Gas fosila ekoizteko edo kontsumitzeko inbertsio gehiagori uko egitea, erregai fosilak lehenbailehen eta pixkanaka bertan behera uztearekin eta karbono gutxiko alternatibak garatzearekin bat. Beharrezkoa da epe ertainean Bizkaiko ziklo konbinatuko hiru zentral termikoen itxiera definitzea.
- Energia-sistema demokratizatzea, haren gaineko kontrol oligopolikoa amaitzen lagunduko duten neurri eraginkorren bidez. Ezinbestekoa da organo erregulatzaileen erabateko independentzia ziurtatzea, eta bateraezintasunei buruzko legea aldatuta "ate birakariak" galaraztea; halaber, energia-jarduera arautuak jarduera liberalizatuak egiten dituzten enpresa eta taldeetatik erabat bereiz daitezen sustatzea.

- Energia garbirako sarbide unibertuala eta bidezkoa bermatzea, pobrezia energetikoan dauden pertsonentzako programa berezien bidez. Arazo horri egiturazko erantzuna eman behar zaio energia-merkatua eta, bereziki, merkatu elektrikoa aldatzearen aldeko apustuarekin, %100 berriztagarria, eraginkorra, adimentsua, bidezkoa eta inklusiboa izan dadin eta herritarren parte-hartzeari irekita egon dadin. Koiunturalak ez diren neurriak lehenetsi behar dira, hala nola energia aurrezte eta eraginkortasuna eta etxebizitza-parkearen erreforma.
- Estatukoaren osagarri izango den plan autonomikoa abian jartzea, %100 berriztagarria izango den trantsizio energetikoa pertsona eta eskualde guztientzat bidezkoa izan dadin. Plan horrek alde aurreko azterketa, aurrekontua, datak eta parte-hartzea izango ditu, genero-ikuspegia duen ekoizpen-jarduera iraunkor berrietarako trantsizioa errazteko eta bizkortzeko. Trantsizioa presaz egin behar da, bai ekoizpenaren aldetik, bai kontsumoaren aldetik, eta inola ere ez da balaztatuko edo neurri irreal edo ezinezkoak baldintzatuko. Erregai fosilei lotutako industria-instalazioak (findegia, birgasifikagailua eta zentral termikoak) modu ordenatuan eta planifikatuan ixteko trantsizio-plana egin behar da, eskualde horiek soziolaboralki babesteko.
- Administrazio-maila guztietan, haustura hidraulikoaren bidez eskistoan gasa eta petrolioak lortzeko debekua bultzatzea, bai eta EAEn hidrokarburoak esploratzeko eta ustiatzeko proiektuak debekatzea ere.
- Aprobetxamendu eolikorako esparru erregulatuak berri bat sortzea (Plan Eolikoa), parametro hauek bereziki kontuan hartuta:
  - » Baliabide eolikoaren lehentasunezko aprobetxamendurako eremuak (baliabide-mapa) identifikatzea eta ezartzea, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitea eta aprobetxamendu eolikoarekiko bateraezintasun-eremuak zehaztea, kasuan kasuko babes-irudietan ezarritakoaren arabera (naturgune babestuak, espezieak kontserbatzeko planek eta estrategiek eragindako eremuak, etab.).
  - » Parke berriak jartzeak sortzen dituen arazo sozialak konpontzea, onurak gizarteratuz eta gizartearen parte-hartzea sustatuz.
  - » Energia berriztagarrien instalazioan eta erabileran herritarren parte-hartze kolektiboa sustatzea, tokiko energia-komunitate izenarekin, energia berriztagarriei eta elektrizitatearen barne-merkatuari buruzko Europako zuzentarauen izpirituak jasotzen duen moduan. Neurri honen bidez, herritarren parte-hartzea sustatu, lehenetsi eta erraztu nahi da energia berriztagarria sortzeko, finantzatzeko, ezartzeko eta/edo kudeatzeko, eta arreta berezia jarriko da landa-eremuetako errentetan.
  - » Itsas energia berriztagarrien kasuan, haien garapena aztertu, ebaluatu eta behar bezala jakinarazi behar da, baita olatuen eta korronteen energiaren kasuan ere.

- Nekazaritza eta basogintzako hondarretan oinarritutako energia-produkzioaren garapena eskura dauden baliabideetara mugatzea, eta, hala, dimentsio eta ingurumen- eta gizarte-irizpideen arabera bideragaitzak diren proiektuen burbuila saihestea. Era berean, lurra labore bioenergetikoak ekoizteko erabiltzea saihestu behar da, zuhaitzak landatzea barne. Energia erabilerarako edo baso hondakin gisa onartuko dira basoko suteen prebentziozko baso-kudeaketatik eta mendiak klima aldaketara egokitzeko kudeaketatik datozenak, mendietan erregai-karga murriztea eta baso-masan oin-dentsitatea murriztea helburu duten ekintzak barne.
- Teknologia eraginkorrenak sartzeari Eusko Jaurlaritzak kudeatutako sistemetan (argiteria publikoa, eraikin publikoen klimatizazioa eta ura hornitu eta arazteko sistemak).
- Eusko Jaurlaritzaren eraikinak eta jabetza publikoko eraikinak eguzki plakaz hornitzeko plan bat garatzea, 2021ean Eraginkortasunari buruzko Zuzentarauaren betebeharrak lortzeko, hau da, administrazioko eraikin guztiak ia batera kontsumorik ez izateko.
- Eraikin eta espazio publikoetan autokontsumorako sistemak jartzea, soberakinekin bizilagunekin konpartitzeko. Adibidea: estalki gaineko autokontsumo fotovoltaikoa.
- Hirigintzako araudia aldatzea, hiri-eremuan energia berriztagarrien instalazioa errazteko, autokontsumo-sistemak ezartzea errazte aldera (beste erkidego batzuk egiten ari diren bezala; izan ere, soilik udalari alde aurretik jakinarazita, eta obra-lizentzia ezabatuta, instalazioa erraztu eta arindu daiteke).
- Egungo teknologia modernoekin, etxebizitza sektoreko energia kontsumoa berrikustea eta eguneratzea, energia eraginkortasuna eta energia aurrezteko sustatuz.

### **C) Nekazaritza eta abeltzaintza industrialetik agroekologian eta elikadura burujabetzan oinarritutako nekazaritza eredurantz igarotzea**

- 2030ean, nekazaritzako sektorearen emisioak %42 murriztea, 1990eko emisioekin alderatuta, ongarrantze kimikotik eta aziendatik eratorritako oxido nitrosoaren eta metanoaren emisioak murrizteko bermeekin.
- Nekazaritza ekologikoa sustatzea, 2030erako erabilitako nekazaritza-azaleraren %30 eta 2050erako %100 lortu arte. Lehen urrats gisa, gune babestuen kanpo mugatik gutxienez 20 kilometroko eremuan dauden nekazaritzako ustiategi guztiak nekazaritza eta abeltzaintza ekologikora pasatzea bultzatzea.

- Abeltzaintza intentsiboko proiektu berrietarako eta lehendik daudenak handitzeko moratoria ezartzea, azienta murrizteko plan bat ezartzea eta abeltzaintza intentsiboko egungo ustiategietarako trantsizio justua sustatzea abeltzaintza iraunkor, estentsibo eta ekologikorako bidean.
  - Hondakin organikoen gaikako bilketa eta horien konpostajea sustatzea, ongarri kimikoen mendekotasuna murrizteko, lurzorua emankortasuna hobetzea eta higadura-prozesuak geldiarazteko.
  - Klima aldaketarekiko zaurgarrien diren nekazaritza-eremuak identifikatzea eta eremu horiek egokitzeko eta berreskuratzeko plana garatzea agroekologian oinarrituta.
  - Klima aldaketaren aurkako borrokan eta biodibertsitatearen babesari dagokiola anbizio handiko Nekazaritza Politika Bateratu (NPB) baten aldeko apustua egitea, eredu %100 agroekologiko baterantz igarotzeko aukera emango duena eta industriako nekazaritza eta abeltzaintza finantzatzeari utziko diona.
- D) Arrantza eredu jasangarri baterako trantsizioa**
- Artisau arrantza eta arrantza baliabideen erabilera jasangarria defendatzea, arrantza baliabideen kudeaketa hobetzearen alde eta arrantzarako tokien gehiegizko ustiapenaren eta legez kanpoko arrantzaren aurka eginez.
  - Itsasertzeko itsas erreserben kudeaketa, zaintza eta ikerketa areagotzea eta hobetzea, biodibertsitatea babestea eta arrantza-stocken berreskuratzea sustatzeko.
  - Artisau-flotaren eta flota jasangarriaren interesen bozeramaile izatea, eta arreta handiagoa jartzea Arrantza Politika Bateratua ezartzeko prozesuetan.
  - Itsasertza kudeatzeko prozesuak sustatzea, arrantzaren kudeaketa jasangarria lortzeko, funtsezko eragile guztiak tartean direla.
  - Europako Batasunak arrantza produktueterako onartutako etiketatzea aplikatu eta ezartzea arraina saltzen den lekuetan. Arrantza-produktuen trazabilitatea eta etiketatzea bermatzeko behar diren neurriak eta kontrolak garatzea.
  - Erakundeek laguntza erabakigarria ematea artisau-arrantzari eta arrantza jasangarriari, partehartze aktiboaren bidez eta produktuen kontsumoa sustatuz eta produktua balioesten duten merkatuak sustatuz. Kontsumoa eta barne-egazagutza sustatzea (irakaskuntza, udalak, etab.).
  - Energiaren eta klimaren plan integratuen bidez, behar bezala aurrekontuetan sartutako azterlanak egin eta neurriak hartzea, arrantza-sektore jasangarria klima-aldaketaren ondorioetara egokitzeko.



# 2020 HAUTESKUNDEAK

Biodibertsitatea eta ekosistemak, gure gizartearen



garapenaren giltzarria



## 2 BIODIBERTSITATEA ETA EKOSISTEMAK, GURE GIZARTEAREN GARAPENAREN GILTZARRIA

**Ekosistemen kontserbazioak eta kudeaketak erkidegoko politiketan lehentasunik ez izaten jarraitzen dute**, hauek neurri handi batean planeta eta biodibertsitatea hondatzen dituzten garapen ekonomikoa eta enplegua sustatzeko neurrietan oinarritzen baitira.

**Datu deigarri batek erakusten digu Euskadi**, espainiar estatuko iparraldeko kostaldeko komunitate urbanizatuena dela, eta laugarrena guztira Kataluniaren, Valentziako Erkidegoaren eta Andaluziaren atzetik, **itsasertzaren %12,8 urbanizatuta egonik**.

Gizarte baten ongizatea naturaren kontserbazioarekin kontrajarria dagoela dioen premisa abiapuntu guztiz okerra da, eta ez digu uzten benetako eskubide demokratikoez gozaten, hala nola osasunari kalterik egiten eta etorkizuna arriskuan jartzen ez duten ondasun eta zerbitzu garbiak eskuratzeko berdintasunaz.

**Ekosistemak funtsezko oinarria dira bizitzarako, horietatik behar dugun guztia lortzen baitugu, ingurumen ondasunak eta zerbitzuak ematen dituzte, hala nola elikagaiak, lehengaiak, klima erregulatzen duten prozesuak, klima aldaketak sortutako inpaktuak arintzeko prozesuak eta ekosistemen zerbitzu kulturalak, besteak beste.**

Jarduera industrialek, lurzoruaren erabileraren aldaketek, espezie inbaditzaileek, txanda laburreko landaketetan oinarritutako basogintza ereduaren intensifikazioak, legez kanpoko hirigintzak eta nekazaritza eta abeltzaintza intentsiboek ekosistemak suntsitzea dakarte, eta, ondorioz, espezie asko desagertuko dira. **Munduko biodibertsitatearen galera naturaltzat jotzen dena baino 100-1.000 aldiz handiagoa da**, eta Espainiar Estatuan, espezieen %40tik %70era bitartekoa da. **Euskadin, kezkagarria da espezieen egoerari eta populazioen bilakaerari buruz dagoen informazio eskasa**. Habitategi dagokienez, berriz, intereseko habitaten %77 arriskuan daude. Azpimarratu behar da Euskadik kostaldeko habitat naturalen %39,4 dituela babestuta. Horrek adierazten du ekosistemak eta espezieak babesten jarraitu behar duela. Egoera kezkagarri hori areagotu egiten da klima-aldaketarekin eta ekosistemak inoiz baino ahulagoak dira gaur egun. Testuinguru horretan, aisialdiko jarduerak batzuk, hala nola dagoeneko murriztuta dagoen fauna baten gainean egindako ehiza eta kirol-arrantza, ez dira posible izan behar espezie horien osasun-egoerari buruzko azterketa zorrotzik egin gabe.

Inbertsio falta lurraldeko arazo nagusien kausa komuna da, eta konponbideak **landa-eremuaren dinamizazioa** ere barne hartu behar du; izan ere, horrek kultura, natura eta biodibertsitateari dagokiola aberastasun handia du, eta beraz, hau zaindu, babestu eta duindu egin behar da. **Bereziki, ura babestu beharreko baliagai estrategikoa da**, gero eta urriagoa izango baita klima aldaketarengatik eta kutsadurarengatik. **Lurraldearen kudeaketa modu transbersalean egin behar da**, biodibertsitatearen galera geldiarazteko eta Euskal Herriko ekosistemak ekintza ekonomikoetarako baliatzen dituzten sektore guztiakak kontuan hartuta (nekazaritza, basogintza, turismoa, etab.).

**Premiazkoa da ingurumena eta biodibertsitatea babesteari beharrezko garrantzia politikoa ematen hastea**, eta, aldi berean, honek euskal ekonomiaren trantsizio ekologikoaren bektore gisa duen balioa aintzat hartzea eta honetarako baliabideak ematea.

## Neurriak

### A) Ingurumena eraginkortasunez babesteko legeak aplikatu eta betetzea, eta beste batzuk aldatzea

- Ingurumenari buruzko Europako araudia betetzea (Uraren Zuzentarau Markoa, Habitataren Zuzentaraua, hondakin-uren tratamenduari buruzko Zuzentaraua, Nitratoei buruzko Zuzentaraua eta Produktu Fitosanitarioen Erabilera Jasangarriari buruzko Zuzentaraua), eta abeltzaintza industrialak eragindako amoniako-emisioak murrizten laguntzea.

- Mendiei buruzko Legea betetzea baso suteak izateko arrisku handia duten eremuetako prebentzio edo defentsa planei dagokienez, baita basoetako sutek sortutako larrialdietan babes zibilerako oinarritzko zuzentaraua ere, horrek larrialdi eta babeserako planak izatera behartzen baitu.
- Epaitegien epaiak betetzea, kostaldeko legez kanpoko eraikuntzak eraisteko, besteak beste Petronorren koke planta, eta ingurua lehengoratzeko.

### B) Hobekien kontserbatutako ekosistemen babesa eta giza jarduera tradizional eta jasangarriekin lotutako eremuen dinamizazioa konbinatzen dituzten ingurumen-politikak

- EAEko Biodibertsitate Estrategiak 2020ra arte planteatutako neurrien betetze maila aztertzea eta 2030era arte ezarritakoak betetzen direla ziurtatzea.
- Naturgune babestuetatik kanpo dauden eremuen balio ekosistemikoa onartzea eta gizarteari ematen dizkioten ingurumen ondasun eta zerbitzuak mantentzeko kudeaketa tresnak prestatzea. Halaber, itsasertzeko eremu babestuak handitzea, bereziki lehorrekoak, kudeaketa egokia ziurtatzeko eta balio handiko inguruneetan etorkizuneko hirigintza garapenak saihesteko.

### Biodibertsitatea eta ekosistemak, gure gizartearen garapenaren giltzarria

- Korridore ekologikoen garapena sustatzea, habitaten eta espezieen kudeaketa hobetzeko kontserbaziorako eskala egokietan. Beharrezkoa da eskumenak dituzten administrazio desberdinen arteko koordinazioa ahalbidetzea, sektore arteko partaidetzarekin eta gardentasunarekin.
- Jarduera tradizional eta iraunkorrak sustatzea, hala nola familiako nekazaritza eta abeltzaintza, oinarri agroekologikoa dutenak; zurezkoak ez diren beste baso-aprobetxamendu batzuk eta kostaldeko jarduera jasangarriak. Gainera, naturaren babesarekin eta hurbileko produktuak banatzeko sareekin lotutako produktuen bereizketa balioetsi eta sustatu behar da.
- Turismoa planifikatzea, kostaldekoa zein barnekaldekoa, lurraldearen balio naturala, kulturala eta ondarearengatik duen balioa aitortzen duena. Era berean inguruneak jasaten duen presioa ebaluatzea, turismoa elementu suntsitzailea izan ez eta, trantsizio ekologikorako laguntza izan dadin.
- Itsasertzaren eta landa eremuan hirigintza-plangintza egokia bermatzea, klima-aldaketaren eraginak kontuan hartuko dituen, hala nola itsas mailaren igoera eta uholdeak, eta baso-suteak handitzeko arriskua.
- belaunaldi berriak agroekologian sartzea errazteko zerga-neurriak sartzea. Gainera, lurraldeko biodibertsitatea babesten duten basogintza praktika jasangarriak sustatzea.
- Espezie gutxi batzuen monolaborantzetan oinarritutako baso-ekoizpen intentsiboa ez sustatzea (intsinis pinua eta eukaliptoak, batez ere), eta eredu dibertsifikatuago baterako trantsizioa sustatzea, aniztasun espezifikoa, genetikoa eta egiturazkoa bilatuko duen basogintza batean oinarritua, zeinak basoak klima-aldaketarekiko erresiliente bihurtuko dituen.

### C) Ekosistemek gizarteari ematen dizkieten ingurumen ondasunen eta zerbitzuen hornidura ziurtatzea eta biodibertsitate babestea

- Eremu babestuen euskal sare urria eta, bereziki, Natura 2000 sarea zabaltzea. Sare hori Euskadiko azaleraren % 22tik beherakoa da, eta arreta berezia jarri behar zaio Europako Batasunak eskatu bezala zohikaztegiak eta brañak babestutako eremuetan barneratzeari. Itsas erreserba gehiago sor daitezen bultzatzea. Eskaera zientifikoekin bat etorri eta Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmenaren esparruan, EAEko lurraldearen % 30 babestuta egon beharko litzateke 2030erako.
- Legeria betetzea naturgune guztiek Erabilera eta Kudeaketarako Plan Zuzentzailea (EKPZ) izan dezaten legegintzaldi honetan, gauzatzeko aurrekontu egokiek.
- Arreta berezia jartzea hezeguneak lehengoratu eta kontserbatzeari, hala nola itsasertzeko aintzira, padura, ihitoki, braña eta zohikaztegiak.

- Hurrengo legegintzaldian, araudiak dioen bezala, galzorian dauden espezieak berreskuratzeko plan guztiak eta egoera zaurgarrian daduen Arriskuan dauden Espezieen Euskal Katalogoko espezieak kontserbatzeko planak egiteko konpromisoa hartzea. Ekosistemetako funtsezko espezieen benetako babesa, hala nola Kantauriko alga gorrien larreak.
- Bertako espezie hostozabalen masen inbentarioa egitea eta haiek kontserbatzeko eta handitzeko politika garatzea.
- Polinizatzaileen benetako babes eraginkorra, haien kudeaketarako politikak ezarriz, erleentzat arriskutsutzat jotzen diren plagiziden erabilera erabat debekatuz eta 2023rako plagiziden erabilera %50 murriztuz, egungo biodibertsitate-galera leheneratzeko. Glifosatoaren erabilera debekatzea hiriko lorezaintzan eta trantsizio plan bat aurkeztu eta kontserbatzea nekazaritzan erabat kentzeko.
- Oinarrizko ondasunen hornidura bermatzea, hala nola urarena, baliabide hidrikoak behar bezala kudeatuz, ura lapurtzearen delitua eta ura kutsatzen duten jarduerak jazartzea barne; eskaeraren hazkundera geldiaraztea (ureztaketa, industria edo hirikoa); trasbaseak salbuespenezko kasuetan eta giza hornidurarako soilik onartu eta urtegi berriak eraikitzeko aukerak guztiz gelditzea.
- Habitategen eta espezieen eskaintzen dituzten ingurumen-zerbitzuen hornidura bermatzea, behar bezala kudeatuz. Kudeaketa horrek, urte osoan zehar suteak prebenitu eta itzaltzeko kanpainak barne hartuko ditu, ez bakarrik udan.
- Aire zabaleko laborantza transgeniko komertzial eta esperimentalak debekatzea, labore horiei buruzko Europako legeria berriak babesten duen bezala eta, Aragoiko Gobernuaren 256. txosten teknikoaren ondorioak kontuan hartuta.



## 2020 HAUTESKUNDEAK

Tokiko kontsumo ereduak aldatzeak duen eraldaketarako

o ahalmena



### 3 TOKIKO KONTSUMO EREDUA ALDATZEAK DUEN ERALDAKETARAKO AHALMENA

**Pertsonak eta kontsumo ereduaren aldaketa batek planeta bizitzeko leku hobea bihurtuko dute.** Worldwatch Institute-ren arabera, gaur egungo garapen ekonomiko eta politikoaren ezaugarri nagusia kontsumismoa da. Ondasunen kontsumo neurrigabe eta konpulsiboa, ingurumenaren eta bizi kalitatearen degradazioarekin estuki lotua dagoena.

Espainiar estatuan, egungo kontsumo-ereduek erakusten **dute eskura dagoen lurraldea ia 3,5 aldiz behar dela ditugun diren baliabide naturalen beharrak asetzeko.** Erabili eta botatzeko kultura planeta itotzen ari da. Horrekin guztiari gehitu behar zaio, hondakinak kudeatzeko sistemaren porrota: enpresek onura ekonomiko handia ateratzen dute, herritarrek gainkostua ordaintzen duten eta hondakinak gaizki tratatzeak eragindako kutsadura-arazo larriaren biktima diren bitartean.

Hiriak ahalmen handiko eremuak dira ekonomiaren trantsizio ekologiko, sozial eta parte-hartzailea bultzatzeko eta gizartea eta ingurumena aldatzeko palanka gisa jardungo duten politika alternatiboei ekiteko. Gune horietan, produkzioan eta kontsumoan gertatzen diren aldaketek eragin positiboa eta negatiboa izan dezakete klima-aldaketan, biodibertsitatean eta gizarte-desberdinkeria areagotzean. Horregatik, xahutzeak, ustelkeriak eta zorpetzeak oinarri duten hiri politiken aurrean, **tokiko politika egiteko beste modu bat behar da, non pertsonen eta planetaren beharrak lehenetsiko diren.** Iraunkortasunean, pertsona guztien oinarrizko beharrak asetzean (aire garbia, ur nahikoa eta kutsatu gabea, energia berriztagarria, elikagai osasungarriak, etxea izateko eta lasai atsedean hartzeko eskubidea...) eta desberdinkeria ezabatzean oinarritutako eredua.

Gobernu autonomikoen politikak egin behar dituzte jaten duguna, mugitzeko modua, sortzen duguna, sortzen ditugun hondakinak edo berotzen gaituen energia planetarekin orekan dauden jarduera bihurtzeko. Azken batean, politika autonomikoen gure eragin negatiboa murriztea planetan, eta hiriak eta herriak bizitzeko leku osasungarriagoak bihurtzea.



## Neurriak

### A) Tokiko esparrutik ekoizpen eta kontsumo eredu jasangarriak bultzatzea

- Tokiko administrazioetatik, pertsonengandik hurbil egonik, ekonomiaren trantsizio ekologikoa ezartzea. Trantsizio horrek lagundu egingo du kontsumo, elikadura, garraio, materialak berrerabiltzeko eta energia kontsumitzeko ohiturak aldatzen; produktuen iraunkortasuna eta konpongarritasuna exijituko du; zaharkitze programatua debekatuko du; eta hondakinak sortzeagatik tasak ezartzea sustatuko du.
- Nekazaritza ekologikoa eta elikadura-burujabetza sustatzea.
- “Planetako osasun-dieta” hartu eta sustatzea (landare jatorriko elikagaiak dira nagusi dieta horretan, eta, aukeran eta modu apalean, animalia jatorriko elikagaiak sar daitezke) jantoki kolektibo guztietan, etxez etxeko janarian eta administrazioaren ekitaldietan.
- Europar guztientzako balio duten Energia Garbiaren neurri sorta berriak eta horri lotutako azken arteztarauak agintzen duten bezala, herritarrek energia-sektorean aktiboki parte har dezaten sustatzea eta lehenestea, gizarteak zeregin aktiboa izan dezan energia-sisteman. Autokontsumoa (banakakoa edo kolektiboa) sustatzeaz gain, esate baterako, tokiko komunitateak eta herritarrak instalazio berriztagarrien eta biltegiatze-instalazioen jabetzan ez ezik, horien finantziazioan eta eragiketean ere sar daitezten ahalbidetuz, hala gertatzen baita herrialde aurreratuagoetan, herritarren parte-hartzeari eta eskariaren malgutasunari dagokienez.
- Energia zikinak edo arriskutsuak erabiltzea sustatzen duen edozein ekimen politiko, diru-laguntza edo bultzada amaitzea.
- Trantsizio ekologikoan parte hartu nahi duten pertsona eta negozioentzako neurri fiskalak eta laguntza-neurriak abian jartzea: autokontsumoa, birgaitze energetikoa, eraikuntza jasangarria, ibilgailu elektrikoak, eskaria kudeatzeko eta gehitzeko sistemak (bai pertsonen eta merkantzien garraiorako, bai energia elektrikorako), tokiko eta garaiko elikadura.
- Hondakinen lege autonomiko baten bidez, araudia sortzea, zero hondakineko politiketan aurrera egiteko, eta helburu hauek lortzeko:
  - » Zero hondakineko politikak sustatzea, emisioak nabarmen murrizteko, murriztearen, berrerabiltzearen, birziklatzearen eta konpostajearen bidez, eta behin betiko baztertzea klima-aldaketari modu garbian laguntzen diotenak (erraustegiak eta zaborteziak).
  - » Gaur egungo birziklatze-sistema erabat birformulatzea, gaikako bilketa SDDR (Ontziak Utzi, eta Itzultzeko Sistema) eta atez ateko bilketa bezalako metodoekin ezarritik, kalitatezko materialen tasa handiak berreskuratzeko. Beste herrialde batzuetan lizentziarik ez duten operadoreei hondakin plastikoak esportatzen dizkieten birziklatze-enpresen aurkako neurriak hartzea. Berreskuratze materiala eta birziklatzea sustatzea, enplegu berdeko iturri eztabaidea ezina baitira. Ontziak ezabatze eta murrizteko eta behin bakarrik erabiltzeko plastikoak erabiltzeko arauak ezartzea.

- » Tasa bat aplikatzea hondakinak sortzeagatik. Sorkuntzagatiko tasa bat aplikatzeak edo sorkuntzagatiko ordainketak (PxG edo pay-as-you-throw, PAYT, ingelesezko sigletan) hondakinak kudeatzeko sistema bati egiten dio erreferentzia, hiriek eta udalerriek sortutako hondakin-kantitatean oinarritutako kostua erabiltzaile bakoitzari esleitzeko aukera ematen duena. Sistema hori bidezkoagoa izateaz gain, hondakin gehiago sortzen duenak gehiago ordaintzen baitu, murrizketa eta birziklatze mailak hobetzen dituen sustapena sortzen du herritarren artean.
  - » Hondakinaren erraustegi berriak eraikitzeke edozein proiektu behin betiko baztertea.
  - » Zementu-fabriketan hondakinak erretzea debekatzea.
  - » Frakzio organikoa eta etxeko konpostajea jasotzearen alde egitea.
  - » Kontsumo-ondasunen konpongarritasuna eta berrerabilpena sustatzea.
  - » Elikagai-kateko maila guztietan, baina bereziki ekoizpenean, elikagai hondakinak gutxienez %50 murriztuko direla bermatzea, 2024rako.
  - » Azpiegituren kontrol administratiboa hobetzea, zabortegiena esaterako, eta Zaldibarkoa bezalako kasu gehiago saihestea.
  - Zabalgabiko instalazioa Bizkaian ixteko planteamendua egitea eta Zubietako erraustegiaren abiarazte ofiziala geldiaraztea.
- ### B) Garraio-eredu garbia eta sozialki bidezkoa
- 2030eko Euskadiko Garraio Iraunkorraren Plan Zuzentzailea ebaluatzea eta berrikustea, Eusko Jaurlaritzaren larrialdi klimatikoaren deklarazioarekin koherentea izan dadin, eta egungo eredutik energia berriztagarrietan oinarritutako garraio publiko kolektiboaren eredurako trantsizioa erraztuz.
  - Airearen kalitatea bermatzea, hirietako aire-kutsaduraren iturri nagusia den ibilgailuen zirkulazioa murrizteko politikak ezarriz, Europar Batasunak ezarritako legezko mugak eta Osasunaren Mundu Erakundeak gomendatutakoak bete arte.
  - Garraio-eredu garbi, adimentsu eta sozialki bidezkoa ezartzea, motorrik gabeko garraiobideei (oinezkoa eta bizikleta) eta garraio kolektiboari lehentasuna emanez auto partikularraren aldean, eta, aldi berean, motordun garraiobideen elektrifikazioa eta ibilgailuen erabilera partekatua sustatuz.
  - Barne-errekuntzako motordun ibilgailuen zirkulazioa pixkanaka mugatzen joatea, diesel motor kutsagarrienetatik hasita, 2040 baino lehen emisiorik gabeko automobil-parkea izateko. Ibilgailuen flotak beste ibilgailu elektriko batzuetara aldatzeko plana ezartzea.
  - Administrazioetako eraikin guztietako aparkaleku-plazak arautzea eta murriztea, eta, hartara, ibilgailuan sartzea eragotziz.

- Lehenetasunez aparkatzeko erreserba ezartzea okupazio handiko ibilgailu elektrikoentzat (bi pertsona baino gehiago), ibilgailu elektriko indibidualentzat lehenetasunezkoak ez diren aparkalekuak, eta aparkaleku horietan kargatzeko puntuak ematea.
  - Langileak garraio publikoa eta motorrik gabeko moduak erabiliz lanpostuetara iristeko pizgarriak ezartzea.
  - Ibilgailu elektrikoetarako kargatze-puntuen sare bat planifikatu eta ezartzea lurralde osoan, sektore pribatuan kargatze elektrikoko puntuak ezartzea sustatuz.
  - Mugikortasun eta garraio planetan kutsadura atmosferikoaren eta berotegi-efektuko gasen emisioen adierazleak sartzera, baita horiek murrizteko helburuak eta helburu horiek betetzeko berariazko neurriak ere.
  - Egungo sarearen kontserbazioari lehenetasuna ematea, autobide berriak egin eta portu edo aireportu berriak eraiki edo handitu beharrean. Inbertsioek lehendik dagoena mantendu eta hobetu behar dute, inbertsio puntualak ("kirurgikoak") eginez akatsak dituzten puntuak zuzentzeko.
    - » Bilboko hegoaldeko saihezbidea (Super Sur) handitzeko obrak geldiaraztea.
    - » Abiadura handiko trenaren proiektu berriak baztertzea, trenbide-konexioa duten zatietatik igarotzen badira, bereziki Euskadi-Nafarroa lotura, eragin ekonomiko eta ingurumeneko handia baitu.
  - » Bilboko aireportua handitzeko planak geldiaraztea.
  - Egungo trenbide-sarea hobetzea, hiriguneetan aldiriko trenak bultzatuz, horiek mugitzen baitute bidaiari gehien. Gasteizen aldiriko trenen gune bat sortzea eta Renferen, Feveren eta Euskotrenen lineak bilduko dituen Euskadiko eskualde-sarea ezartzea.
  - Ontzi eta ontzi ez-eraginkorrenak eta emisio kutsatzaile gehien sortzen dituztenak zigortzeko neurriak ezartzea.
  - Gurutzaontzi turistikoak etortzeko muga ezartzea eta goi-tentsioko hargune elektrikoak instalatzea, atrakalekuan motorrak itzaltzera behartzeko.
  - EAEko administrazio publikoan mugikortasun-politikak ezartzea, enplegu-sortzaile handientzat ere izan daitezkeenak, lanera modu jasangarrietan joatea sustatzeko, enpresa-ibilbide kolektibo bidez, aparkalekuaren erregulazioaren bidez, zero emisioeko floten bidez eta printzipio horiek biltzen dituzten kontratazio publikoko irizpideen bidez.
- C) Pertsona guztientzako oinarrizko baliabideak eta kontratazio publiko ekologiko eta jasangarriak eskuratzeko bermea**
- Egoera zaugarrian dauden pertsonei ur, berokuntza eta elektrizitate berriztagarriaren oinarrizko hornidurak eskuratzeko eskubidea bermatzea legez.
  - Kontratazio publiko ekologikoa eta iraunkorra ezartzea kontsumo-ereduen eta administrazioen lizitazioen ardatz nagusi gisa.

### Tokiko kontsumo eredia aldatzeak duen eraldaketarako ahalmena

- Kontratazio publikorako pleguetan Klima eta biodibertsitatea errespetatzen duten elikagaien hornitzaileak babesten dituzten irizpideak sartzea: produktu ekologikoak, tokikoak, sasoikoak, animalia-proteinak landarearen alde murriztea eta elikagaiak alferrik ez galtzeko neurriak.
- Energia-pobreziaren aurkako neurriak aplikatzea: energia-eraginkortasunari buruzko prestakuntza eta gizarte-langileen eta familien fakturak, gizarte-bonuaren hedapena eta tramitazioa, isolamenduak hobetzeko inbertsioak, eraikin publikoetan sortzen den autokontsumorako edo elektrizitate berriztagarriko sistemak, "hurbileko autokontsumorako" erregimenean.
- Uraren udal kudeaketan pribatizazio prozesu guztiak lehengoratzeta eta kudeaketa publikoko eredu batera itzultzea.
- Kontratazio pleguetan irizpideak ezartzea, gutxiago kutsatzen duten ibilgailuak dituzten enpresen onurarako.



Erakunde ekologista eta bakezale bat gara. Ez dugu  
gobernuen, alderdi politikoan edo enpresen dohaintzarik  
onartzen politikoki eta ekonomikoki independenteak garelako.

**GREENPEACE**

[www.greenpeace.es](http://www.greenpeace.es)